

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Isiltasunaren geruzak



Iratxe Retolaza



Arrastoak DEJABU PANPIN LABORATEGIA

EHAZE, 2016

Duela hiruzpalau urte agertokietan gorputz harturiko *Arrastoak* antzezlanak, Dejabu Panpin Laborategiaren ibilbidean temati azaleraturiko egoerak jorratu zituen: (des) errotzeranzko bideak, isilduriko zauriek utzitako orbanak, memoria gorpuzteko ariketak eta abar. Liburuan geruzaz geruza azaleratu dira antzezlan hartan gorpuzturiko hainbat ikuspegi artistiko.

Gorpuztearen geruza. Lur protagonistak familiako zauri baten arrastoari segituko dio, ama hil berritan; bilaketa horretan bidaide izango ditu aita, Marga lankidea eta Roberto psikoanalista, eta etengabeak izango dira genealogia afektiboen inguruko hausnarketak. Antzezpeneren oihartzunak gogora etorrira ere, irakurraldiak pertsonaiak zein eszenak beste modu batera gorpuzteko aukera ematen digu irakurleoi: gorpuztak hurbilagotik eraikiko ditugu, edo bestelako perspektiba batetik; Bittori txotxongiloari jada hezur-haragizko gorpuzta irudikatuko diogu, eta abar.

Testugintzaren geruza. Euskal antzerki idatzi eta inprimatuak joera nagusi bati lotu zaizkio: antzerki-testua hartu izan da antzezpeneren abiaburu eta aingura. Antzerki-argitalpen gehienek, gainera, sari bat izan dute akuilu, eta kasu horietan, gehienetan antzerki-testu inprimatua baizik ez da hedatu. *Arrastoak* liburuan antzerki-testuaren beste ikuspegi bat hedatu da: testu dramatikoan antzezpeneren arrastoetariko bat baino ez da,

sormen-prozesuaren adarretariko bat baino ez. *Arrastoak* liburua, hortaz, antzezpeneren arrastoak biltzeko ariketa da; eta liburuaren bihotzean kokaturiko argazki-bildumak ere antzezpeneren uneen memoria biziberritzeko balio du (eta antzezpeneren bertan argazkiek ere memoria biziberritzen diete pertsonaiei).

Sortzaileen geruza. Antzezpeneren eta sormen-prozesuaren inguruko hariak eta oihartzunak ere bildu dituzte: besteak beste, sormen-prozesua suspertu duten esperientziak bildu dituzte (ametsak, galera pertsonalak, irakurgaiak, antzezpenerak, sortzaileak...). Oharretan bada nitasunik, baina esperientzia pertsonal horiek gutasun baten barruan kokatu dira, sormen kolektiborako pizgarri izan direlako.

Objektuen geruza. "Dramaturgiaren zirkuluak" atalean, poetikaren ardatzak aletzen dituzte, eta horietan azkena, "objektuen memoria": "Baina espazio baten sintesiaz gain, objektu horrek emozio bat ere ekar dezake". *Arrastoak* liburuaren irakurraldia amaitzean, halako sentsazioa izan dut: antzezpeneren memoriaren arrastoak objektu bilakatu dituela, emozio-kaxa bihurturik; era berean, erresonantzia-kaxa baten gisa, espazioan zein denboran (des)errotzearen inguruko emozio zein galdera berriak sortu ditu. Liburuak, beraz, adarkatzeak sortu ditu *Arrastoak* egitasmoan. ■